



López lehendakariaren Gobernua eztabaidan

M A H A I - I N G U R U A

■ Ramon Etxezarreta

■ Xabier Gurrutxaga

■ Ander Iturriotz

IRITZIAK

- Josu Amezaga
- Maria Lizardi

- Joseba Arregi
- Erramun Osa

- Anjeles Iztueta

Normalizazioaren esperoan PSEren eta PPren Ituna transbertsalitate bakarra

Eusko Jaurlaritzaren lehen urteurrena aztertzeko gonbita egin genien hiru solaskideei. Patxi López lehendakariaren Gobernuak gai nagusitzat harturik, lerro larri hauek proposatu genizkien eztabaidarako: Normalizaziorako Gobernuak –izan– al da? Aldaketaren Gobernuak ote? Lehendakariak iragarri zuen bezala, transbertsalitatea eta konfrontazioa landu ote ditu? Halaber, Alderdi Politikoen Legearen ondorioz “Gobernuaren zilegitasuna edo ez-zilegitasuna” ezbaian jarri genuen. Hasi eta ordu luze batez “Gobernu honen legitimitatea ez-legitimitatea” gaia nagusitu zen solasaldian. Datozen udal eta foru hauteskondeez eta abertzaletasunak –bereziki ezker abertzaleak– bizi duen egoera politikoaz euren iritziak jaso genituen. Horratx, sartu eta hausnartu.

■ Mikel Asurmendi
Argazkiak: Dani Blanco

Zer balorazio egiten duzue Eusko Jaurlaritzak
lehenengo urtean burututako politikaz?

ANDER ITURRIOTZ. Legitimitatearen gaiak jardun nahi dut abiapuntuan: Patxi Lópezen Gobernuak ez-legitimoa da, euskal soziologia politikoa iruzurtu osteko gehiengoz osatua. Ez hori bakarrik. Lópezek Gobernuak eskuratzeko PPrekin egin zuen Ituna agindu edo hitzeman zituen kontra joan da. Lópezek “ez dut PPrekin paktatuko” esan zuen behin eta berriz. Bere Gobernuak ez zela identitate gaiaren inguruan osatuko, aitzitik, herritarren egiazko kezken inguruan eraikiko zela esan zuen. Gobernuaren ahalegin nabarmenena euskal identitate nazionala suntsitzea izan da. Kanpainan agindu zituen beste gaiak ahaztu egin ditu erabat. Beraz, Gobernu honi buruzko nire balorazioa oso-oso ezkorra da.

XABIER GURRUTXAGA: Hauteskondeen emaitzak ikusita beste gehiengo bat osatzeko modua bazegoen, nik uste. Alegia, beste gobernu bat osatzeko

aukera zegoen, hautesleek emandako hitzaren eta borondatearen arabera: sozialisten eta jeltzaleen arteko gobernuak. Inkesten arabera, hori izan liteke gehiengoak nahi zukeen itun politikoa. Politikoki gorpuzteko itun zaila zen, baina PSE-EEK aukera hori alboratu zuen berehala. Hauteskunde kanpainan oraingo Gobernuak osatzea ez zitzaizola buruan sartzen esan zuen arren –ez zuela PPrekin aukera baliatuko Ajuria Eneara iristeko esan zuen–, Patxi Lópezek PPrekin itun politikoa egitea erabaki zuen. Oraingo Itunak EAEn muga politiko-sozial handiak dauzkala jakitun izanik ere, hautesle sozialistek gutxien preziatzen duten ituna dela jakinik ere, alderdi sozialistak apustu hori egin zuen. Baina ez uste dutelako hori beharrezkoa dela Euskadirentzako, baizik eta Ajuria Eneara iristeko eta lehendakariaren kargua hartzeko bide bakarra delako. Kontua ez da Gobernuaren legitimitatea, ez-legitimitatea, hori besterik da. PSEk gizarteak beharrezkoago duen Gobernuak alde batera utzi zuen, baina hautu horrek PPrekin faktura ordaintzen hastea ekarri dio jada.



Xabier Gurrutxaga, Ander Iturriotz eta Ramon Etxezarreta Donostiako EIEko egoitzan.

RAMON ETXEZARRETA. Gobernu honen balorazio positiboa egiten dut nik. Matematikoki gehiengoa lor zezakeen koalizio bakarra dela uste dut. Xabierrek aipatu dituen Itun honen tatak ber-berak izan litezke ituna alderdi sozialistaren eta EAJren artekoa izan balitz, edozein motatako ituna izanda ere. EAJ-PSEren arteko ituna inposiblea da uneon. Gobernu positiboa dela diot eta ez naiz kudeaketaz ari. Positibotzat jotzen dut Euskal Herrian beste formula politikoak gauzatzea posible dela erakusten duelako, baita beste jende batzuen eskubideak bermatzea posible egiten duelako. EAeko herritarrek ez dute euskaldunen arazoak kudeatzeko gobernu nazionalista baten beharra ikusten. Gobernu honek irauten duen egun bakoitza garai-pen bat iruditzen zait, Gobernu osatzen duten indar politikoentzat baita euskal gizartearentzat ere.

Niri, berez, agintarien aldaketa nahikoa zait, eta pozten naiz aldaketa eman izanaz. Orain hori esanda ere, seguru asko datozen urteetan Gobernu honi gehiago eskatuko zaio kudeaketan eta auzi jakin batzuetan. Zer gaitasun daukan erakutsi beharko du,

zertarainoko aldaketa politikoa bultzatzen duen eta zenbateraino ez den “agintzearen” aldeko aldaketa soila. Alegia, aurrerantzean beste arazo batzuetan sartuko al da? Ahuleziak dituen Gobernu da. Esperientzia gutxiko pertsonak ari dira. Areago, ez dakit krisi ekonomiko beldurgarri honetan aldaketa gauzatzea posible den, bultzada ekonomiko behar-beharrezko daukan Gobernu honek. Egoera zaila dauka.

X. GURRUTXAGA. Anderrek esan du Gobernu ez-legitimoa dela. Ea, bada. Bizi garen sistema demokratikoan gobernuak eta lehendakariak nola aukeratzaren diren badakigu: parlamentuan gehiengoa lortzen duenak. Eta legitimitatea edo ez-legitimitatea Legebiltzarraren osararen jatorrian begiratu behar da. Norbaitek Gobernu honek jatorrizko bizioa daukala esaten badu, euskal gizartearen borondatea PSE-EE eta PPren Itunean bizi-tuta dagoela eta hortik datozen fruta guztiak bizi-tuta daudela –Anderrek egin duen printzipiozko balorazioaren arabera– egia litzateke. Baina, kontuz, ondorioak oso kaltegarriak

lirateke balorazio politikoak egiteko orduan. Nahiz eta jende asko Alderdi Politikoen Legeaz egin den hainbat aplikazioen aurka egon, ni barne, legitimo edo ez-legitimo den eztabaida hori ezin da egin Estrasburgoko epaia jaso ondoren, edo berau aintzat hartu gabe. Epaia [Batasunaren] ilegalizazioaren aurka izan balitz, Anderrek dioena oso serio eztabaidatu beharko litzateke. Ez da kasua ordea.

A. ITURRIOTZ. Xabierrek esana erretolika formalista da. Hori horrela bada, Legebiltzarrak ematen du legitimitatea, eta hori ez da egia. Baldin eta Legebiltzarra modu unibertsalean aukeratzen baldin bada, ados, baina gure herriko parte honetan ez da horrela egin. Legitimitate mailak eta mailak daude. Eta ez du balio Estrasburgora jotzeak, dakigulako *de facto* Madrili begiratzen diola. Beraz, zure argudioak ez du funtsik.


Etxezarretak Gobernuaren politika positiboa dela esan du. Gobernuak aldaketa bultzatu duela, beste identitate bat eta beste ikuspegi ez-nazionalista bat eman dizkiola, bere ustez ez-nazionalista. Adibiderako: *El Correo* espainoleko artikuluegile gehienek Patxi López 6-7ko nota eman zioten. Xabierrek

[Gurrutzagak] eman zion suspensio bakarra, 4 batekin. Nota positiboa ematen zioten guztiek bat egin zuten puntu batean: arazo identitarioan. Hori zen aldaketa argudiatzeko arrazoi bakarra. Inork ez zuen kudeaketan arazorik ikusi. Begi-bistakoa da: Lópezek aprobata du urtea “arazo identitarioaren gaia aprobata duela”. Begira dezagun kudeaketa, esaterako, hezkuntzan eman den eraldaketa izugarria da. Lópezek gizarte itun bat egin nahi du, baina konturatu da ezin dituela urratsak eman gurasoen eta irakasleen gehiengoa kontra jarri zaiolako.

Etxezarretari ez zaio gustatuko baina, euskararen munduan Itunak zer egin duen begi-bistan dugu. Adibide bat da: Etxezarretak berak dimisioa aurkeztu du urtea bete baino lehenago, eta prentsan berea porrot pertsonala dela esan du. Nik baina, aitortu behar diot, berea garaipen pertsonala izan dela eta porrota Gobernuarena. Etxezarretak bestela esan arren, Kultura Sailean zer jende dagoen ezagutzen dugu. Unibertsitate Kultura Sailera salto egin duten bi elementuetako batek indarra hartu du sailean, eta, adibiderako, Blanca Urgell andereari [Kultura kontseilaria] bere txostenak erdaraz pasatzen dizkio.

M a h a i k i d e a k


■ RAMON ETXEZARRETA



Filologoa eta politikaria

1954ko uztailaren 12an jaio zen Urrestillan (Gipuzkoa). Euskal filologoa eta euskara itzultzailea da. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan da. Eeko kidea izan zen; 1979tik 1987ra EEren hautetsia. 1994an PSE-EEen afiliatu zen. 1995etik 2007ra Donostiako Udaleko zinegotzia izan zen eta 2007tik bertako Kultura ordezkaria. 2009tik 2010era Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan da, baina 2010eko martxoaren 30ean kargua utzi zuen Kultura Saileko zuzendaritzarekin “gustura ez zegoelako”.

■ XABIER GURRUTXAGA



Abokatua eta analista politikoa

1955eko urriaren 13an jaio zen Ormaiztegin (Gipuzkoa). Magisteritza eta Zuzenbidea ikasia. Ordiziako Jakintza ikastolan bospasei ikasturte egin zuen irakasle. Egun abokatu lanetan dihardu. EIA eta Eeko zuzendaritzako kidea izana. Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta Eusko Jaurlaritzako parlamentarioa bi legegintzalditan. Euskadi Irratian eta Radio Euskadin dihardu. 2000tik hasita *El Correo* idazten du astero zutabea politikaz. *Euskaldunon Egunkarian* behiala eta ARGIAN gaur egun idazten du politikaz ere aldi-aldi.

Arazo identitarioa: PSOEek ez zuen ukitzeko asmorik. Bada ikurriñaren lekuan Espainiako bandera jarri du. Espainiako Erregearen mezua ETBn eman du. Eguraldiaren mapa modu absurdu eta patetiko batez eraldatu du. EITBk kutsu nazionalista zeukalako, kutsu kosmopolita eman omen diote orain. Bada, ez. Eman dioten ukitua ez da batere kosmopolita, espainola baizik. Ertzaintzaren ezkutua ez zuela gustukoa eta aldatu zuen. Identitate zeinuak aldatu nahian aritu da. Hara, Lópezek zezenketak Euskal Herrian ziurtatuta daudela dio.

X. GURRUTXAGA. Konforme, neurri batean. Baina Lehendakari baten legitimitatea aitortzea funtsezko abiapuntua da. Bestela, esaten badugu berea legitimitaterik ez duen Gobernu dela, eta ondorioz egiten duenak ez duela balio, akabo. Patxi López hautatua izan da eta legitimitate hori ezin da auzitan jarri. Eusko Legebiltzarrak hutsune handia duela esan du batek baino gehiagok –Joseba Egibarrek hanka motza dela esan du– eta hori arazo handia da. Ados. Nik ezker abertzalearen jarrera politikoa ulertzen dut, baina Estrasburgoko epaia ezagutu ondoren erabili

dituen arrazoi juridikoekin ez nator bat. Hain zuzen ere, ezker abertzalea presente ez egoteko auzitegiek hartu dituzten erabakiak demokratikoak diren ezin dira zalantzan jarri orain. Horiek auzitegiek erabakitzen dituzte, gustatu ez gustatu.

A. ITURRIOTZ: Gustatu edo ez gustatu... kontuz!

X. GURRUTXAGA. Gustatu edo ez gustatu... Ezin da auzitegiek ematen dituzten ebazpenak ontzat eman nire aldekoak direnean, eta auzitegi horren legitimitate demokratikoa zalantzan jarri bestelakoak ematen dituenen. Estrasburgoko auzitegiak Batasunaren ilegalizazioaren alde ebatzi ordez, kontrakoa adierazi izan balu, orduan auzitegia bikaina litzateke. Auziak Estrasburgoko proba gainditu du, guztiz kontrako egoeran ginateteke ebazpena beste zentzuan eman balu. Alderdien Legearen kontrako epaia eman izan balu Legebiltzarra kolokan legoke. Horrek ez du esan nahi, Legebiltzar horrek euskal gizartearen ordezkaritza osoa hartzen duenik. Argi dakigu ezetz, baina dena ez ordezkatzeak ez du jatorrizko bizioa duenik esan nahi.

R. ETXEZARRETA. Izango da Eusko Legebiltzarraren legitimitatea ukatuko duen jendea, baina seguruenaz ez Gobernuarena adina. Zentzu horretan Xabierrekin nago. Ezker abertzaleko kide bati ulertzen diot argumentu hori. Ados egon edo ez, beste kontu bat da. Auziak bide juridikoa landu du. Euskal gizartearentzat Gobernuaren ez-legimitatea argumentu bihurtu du Batasunaren ilegalizazioak, baina kontuz, Egibar, Ezenarro edo Arana izendatuta dauden legitimitate berdinarekin izendatu da Gobernu, oposizioko hiru legebiltzarkideak aipatzeagatik. Legebiltzarra ez bada legitimoa, orduan Gobernu ere ez.

Bestalde, Ander, zuk identitatea eta nolabaiteko abertzaletasuna batu dituzu. Beraz, euskal nazionalismo politikoaren kontra doan oro identitateari egindako erasotzat jo duzu. Nik ez dakit euskal herritarrok, identitate horren subjektuok zer bilakaera izan dugun Gobernu hau osatu zenetik, nik ez dut nire identitatea zipitzik aldatu denik ikusten. Batzuentzat, identitatea, nazionalismo identitarioa izan da, eta identitate ustezko horren azpimarra handia egin da politikan. Gobernu honek badu arriskua identitate eskusibo hori ordezkatzeko beste identitate eskusibo batekin. Ados. Baina kontua ez da identitateen arteko borro-

■ ANDER ITURRIOTZ



EHUko irakasle eta idazlea

1961eko urtarrilaren 31n jaio zen Ordizian (Gipuzkoa). Soziologian dokorea da. EHUko irakaslea da. Telebistan zein irratian aritzen da analista politiko gisa. 2010eko otsailetik Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria da. *Birundak (ele laburra)* narrazioa (1982), *Goierrri. I. Berrogei ta hiru heiagora. Goierrri. II. Odolezko oskaisto denero* (1983) nobelak idatzi zituen aspaldi. Azken hamarkada honetan bi liburu plazaratu ditu: *Boterea gizarte homerikoan saiakera* (2002) eta *Mugaren ariketa* poesia (2002).

ka, baizik identitate ugarien arteko elkarbizitza. "Euskal identitatea" eta "espainiar identitatea" baino zerbait gehiago dago herritarren artean. Espainiako selekzioa ekartzea identitate zeinua izan daiteke, eta niri politikaren erredukzionismoa egitea iruditu zait. Hori Gobernu honen porrota da. ETBri buruz esan dituzunak beste kontu bat dira. Euskal Idazleen Elkarte (EE) lehendakaria zara. Ez dakit zer nabari duzun. Gobernu honek txikizioak egin behar omen zituen, kasik euskara debekatu egingo zuela entzun dugu. Irakaskuntzaz esan duzunaz: Gobernuaren hanka-sartze batzuk gorabehera, exajeratu samar aritu zara. Hezkuntza Saileko jendea irakaskuntzan guztiz aritua da, profesionalak dira eta gainera, praktikan, lehengo Gobernu kideak baino euskaltzalegoak dira. Honek ez digu hizkuntza nagusiaren apustua –euskara hizkuntza transmisio izatearena– planteatzea kentzen. Euskara aurreko Gobernuaren proposamena batzeko osagaia izan beharrean, zati-ketarako elementua izan zen eta Gobernu hark ez zuen legerik egiteko indarririk izan. Hezkuntza Sailak legea egin behar izan zuen dekretu bidez, beste alderdiek babesten ez zutelako. Beraz, nola egin daitezke komentario hain katastrofistak?

Nire porrota? Garaipena? Hau da nire Gobernu. Egia, ez dut enkajatzeko modurik izan. Zentzu horretan porrot pertsonala da. Faktoreak? Akats estrukturalak daudela uste dut. Alderdi sozialistak egitura zaharrek heredatu ditu. Esaterako, nazionalismo politikoan hizkuntzak kulturaren egoitza edukitzea begi onez hartu da, bada, nazionalismoan ez luke izan behar eta nazionalismotik at gutxiago. Guri estruktura zaharrekin gobernatzea tokatu zaigu eta transbertsalitatea kontu zaila da. Zailtasun operatiboak izan ditut, baina enfrentamendu politikora ez naiz inorekin iritsi.

A. ITURRIOTZ: Identitate gaiak bi hitz gehiago: Lópezek Gobernu hartu baino lehenago, nazionalistek ez bezala, arazo identitarioa baztertuko zuela agindu zuen. Lotuko zitzaioala ideologia eta programa sozialistaren funtsari: gizarte zerbitzu eta langabeziaren arazoak... Gero Gobernu sozialistari irudia emateko Rodolfo Ares ipini zuen lehen lerroan. Ares ETArekin eta ezker abertzalearen kontra atera zen, presoaren irudien kontra, eta borroka identitarioan sartu zen gogor. Ez zuen gai bakar bat ukitu gabe utzi, dena eraldatu zuen. Nola da posible agindutakoa baztertzea PPK

“**L**ehendakari baten legitimitatea aitortzea funtsezko abiapuntua da.

Bestela, esaten badugu berea legitimitaterik ez duen Gobernu dela, eta ondorioz egiten duenak ez duela balio, akabo. López hautatua izan da, eta legitimitate hori ezin da auzitan jarri”

XABIER GURRUTXAGA

eskatu ziolako eta identitatearen gaian halako iskanbila sortzea?

R. ETXEZARRETA. Aresen gabeziak ez zenituen sumatzen lehenagotik ere? EAJri, gai horietaz ez arduratzeagatik, kritikatu zitzaizkionak?

A. ITURRIOTZ. Aresen aldaketaren irudia jarri zuen. Bai, badakigu horrek Madrilen nola saltzen duen. Hori izan zen lehen aldaketa. Isabel Celaak min hartu zuten, Aresen hartu zuen Hezkuntza Saila. Adibide bat baino ez da. Indibiduo horrek psikologia berezia dauka, sail eta zoko guztietan sartu da, eta horrek eman dio Gobernu honi estilo eta urte bateko ibilbide hau. Lópezen Gobernuak irudi hobea du Madrilen hemen baino. Baina hemen López galtzaile atera da.

R. ETXEZARRETA. Oker zabilta, Ander. Aresen apustua hiru hiriburuetakoa alkatetzak lortzea da, baita foru aldundiak ere, eta hori ez da Madrilen lortzen. Euskal gizarteak zer irudi hartuko duen horretaz guztiaz besterik da. Alderdi sozialistak dependentsia organikoak dauka Madrilekiko, jakina. Lehentasunak hango du, hango aurrekontuak aurrera ateratzea, baina Aresen ez du zertan Madrileren begira jardun.

A. ITURRIOTZ. Madrili begira edo Basagoitiri begira, ulertzeko. PSE-EEK pauso bat eman zuen, baina PSE nagusitu da, hau da, batere baskista ez den sektorea. Ramon Jauregiren garaia dut gogoan,

“Euskal nazionalismo politikoaren kontra doan oro identitateari egindako erasotzat jo duzu, Ander. Nik ez dakit euskal herritarrok, identitate horren subjektuok, zer bilakaera izan dugun Gobernu hau osatu zenetik, nik ez dut nire identitatea zipitzik aldatu denik ikusten”

RAMON ETXEZARRETA

Mario Onaindiarekin egin zuen kanpaina baskista, baina gero etorri ziren murrizketak, penduloa bestaldera doa beti. Beti gertatu zaio hori. Orain ere Gobernu osatu eta berehala PPrekin egindako Itunak egoera zailetik pasatzera behartu du, Ituna oso desorekatua baita.

R. ETXEZARRETA. Bai, noski. Barne harremanetan ere desoreka dago. Alderdi sozialistako jende asko dago gure sektoreak esaten duenaren alde, baina gero antipodetara joaten da konponketarako bidea urratu beharrean. Zaila baita. Hori saihestezina da.

A. ITURRIOTZ. Legitimitatearen gaiak segitu nahi dut: justizia eta demokrazia absoluturik ez dago, bestela platonikoak izango ginateke. Platonek “giza abereen artean demokraziarik ez dela eta ez dela egongo” zioen. Ez dago absoluturik, dena dago adjektibatua. Beraz, hitz egin dezagun demokrazia frantsesaz edo alemanaz, edota hitz egin dezagun justizia espainolari buruz. Begira non dagoen Garzon.

R. ETXEZARRETA. Demokrazia soilari buruz hitz egin daiteke adjektiborik gabe?

A. ITURRIOTZ. Demokrazia soilik ez dago, demokrazia sistema operatiboa da. Eta operatibo egiten da errealitate sozio-politiko batean. Orduan ez zait balio esatea, Madrilen aldez edo moldez ateratzen bada,

epaitegi horrek zilegitasun gehiago duen edo ez. Adibiderako Egunkaria auziak balio du. Orain aldeko ebazpena eman delako ondo, baina kontuz, Udalbiltza edo 18/98 auziak hor daude.

X. GURRUTXAGA. Batzuek ohartu behar dute sarritan alde bakarrera begiratzen dutela. Ez zaitut hor kokatzen, horiek baino irekiagotzat jotzen zaitut-eta.

A. ITURRIOTZ. Kontua ez da hori. Horretan dogmatikoa naiz: justizia espainola justizia espainola da.

X. GURRUTXAGA. Ez da dogmatikoa izatea...

A. ITURRIOTZ. ...bai, bai, bai, dogmatikoa naiz. Nik aitortzen dut nire dogmatikotasuna, eta horretan aztertu behar da justiziaren legitimitatea. Eta beste gauza bat: euskal soziologia politikoari %12a kendu zaio, euskal bloke nazionalistari %24 kendu zaio.

R. ETXEZARRETA. Bloke nazionalista egon al da inoiz?

A. ITURRIOTZ. Beste aldean izan den bezala.

R. ETXEZARRETA. Bai, bai, badakit, baina bloke euskal nazionalista?

A. ITURRIOTZ. Bai, boto emaile nazionalistek badute bere soziologia eta konstituzionalistek badaukate berea. Areago, orain gertatu denaren atzean Aznar eta Mayor Oreja izan ziren. Haien estrategia izan zen, eta ez ezker abertzalea nahi zutelako kanpoan, ez, ez; Ibarretxe ez zuten nahi eta EAJ bera ere ez. Eurek esana: “Guk antolatu genuen, orain arte ez da posible izan, baina orain bai”. Ñabardura hauek guztiak aipatu behar dira legitimitatearen gaiak aritzerakoan, ez da bakarrik epaitegien kontua.

X. GURRUTXAGA. Ander, argudio horiek denak, arrazoi politikoak direnez, edozeinek jarri ditzake eztabaida politiko batean eta bakoitzak eman diezaioke nahi duen pisua. Legitimitateaz ari garenean, esparru politikotik harantzago ari gara.

A. ITURRIOTZ. Nik horretan ez dut sinesten.

“**L**ópezek Gobernua hartu baino lehenago berak nazionalismoa ez bezala, arazo identitarioa baztertuko zuela agindu zuen. Lotuko zitzaioa ideologia eta programa sozialistaren funtsari: gizarte zerbitzu eta langabeziaren arazoei. Gero Gobernu sozialistari irudia emateko Rodolfo Ares ipini zuen lehen lerroan”

ANDER ITURRIOTZ

X. GURRUTXAGA. Ez da sinestu behar inoiz... Ezta euskal demokrazian ere.

A. ITURRIOTZ. Ez ez, ezta ere, inondik inora ez.

X. GURRUTXAGA. Harantzago joan nahi badugu eta legitimitateaz hitz egin behar badugu, garbi izan behar dugu erreferente bat: zilegitasunaren diploma nork ematen du? Gure sistema demokratikoetan: espainiarrean, frantziarrean, estatubatuarrean, sobietarrean –zegoenean– edo kubatarrean epaitegiek ematen dute alor horren ebazpena. Ander, Estrasburgoko ebazpena kontrakoa izan balitz –Aznarrek eta Mayor Orejak nahi zutena esanda ere– ebazpenaren ondorio politikoak atzeraezinak lirateke.

A. ITURRIOTZ. Baina eman zezakeen beste ebazpen bat?

X. GURRUTXAGA. Noski.

A. ITURRIOTZ. Nik ez dut horretan sinesten.

X. GURRUTXAGA. Zuk ez baduzu sinesten horretan, zure inguruan dabiltzanek sinestu beharko dute.

A. ITURRIOTZ. Ni bakarka ari naiz, ez dakit nortaz ari zaren...

X. GURRUTXAGA. Erreferentzia bat hartzegatik diot. Niri –abokatu bezala– bezero batek esaten badit: “Xabier, arazoa hau zeukeat eta nahi diat konpondu. Non konpontzen duk hau?”. “Hor aurrean dugun etxe horretan konpontzen duk, baldin hi eta hire kontrarioa ez bazarete ados jartzen beste modu batez”. “Kontxo, ba ez zeukeat batere konfiantzarik etxe horietakoengan, bai baitakit nire kontra egingo dutela”. Nik berriz: “Jode.. ez hadi joan orduan...”.

A. ITURRIOTZ. Eta... zer esan nahi didak?

X. GURRUTXAGA. [Batasunak] ez zuela orduan joan behar Europara.

A. ITURRIOTZ. Hori ez da nire arazoa. Historia hori hik atera duk.

X. GURRUTXAGA. Ea Ander, gaiari hik heldu diok, behin eta berriz. Nik hauxe esan dut: ezker abertzaleak erabaki baldin badu bere ilegalizazioaren auzia tribunaletara eramatea, hau da, esparru judizial batean sartu eta eztabaidatzea erabaki badu, auzia ez du esparru politiko hutsera mugatu.

A. ITURRIOTZ. Baina hemen ez gara ari Batasunaren estrategiaz, Gobernu honen legitimitateaz baizik.



Lópezek Gobernua eta EAJ legealdian hurbilduko direnentz, ezbaian izan zen.

X. GURRUTXAGA. Jode Ander, nik diodanak badu zerikusia hik marginatua kontsideratzen duan espazio soziologikoak egin duenarekin, edo ez? Nik ez badut sinesten epaitegietan, eta nire kontra egingo dutela jakinda joaten banaiz, tontoarena egiten ari naiz, legitimitatea ematen diet epaitegi horiei. Ezker abertzaleak Espainiako Auzitegi Gorenean eta Nazionalean helegiteak jarri zituen, gero Europara joateko. Ez dago Europara joaterik, aurrekoetatik pasa gabe. Kontua ez da Platonek zioena: demokrazia perfekturik ez dagoela edo berak ez zuela sinesten demokrazia perfektuan.

A. ITURRIOTZ. Hori esan dut eta demokrazia eta justizia adjektibizatu behar direla gehitu dut. Madrilék edo Estrasburgok esan dutena alde batera, legitimitatea beste gauza bat da, askoz lehenagokoa.

R. ETXEZARRETA. Eztabaida eraman den terminoetan problema hauxe planteatu da: legitimitarearen epaia non dago, norbera bada sistemaren legitimitatea aitortzeko edo ukatzeko subjektua?

A. ITURRIOTZ. Hori politikak erabaki behar du, esparru bakoitzeko politikak, arazo politikoa baita.

(...)

X. GURRUTXAGA. *El Correoko* artikulura bueltatuz: Nik 4ko nota eman nion Lópezei, datozen urteetan 2ra jaitsi edo 7ra igo daitekeelakoan. Gobernu honek aldaketa ekarri duela esan du Anderrek, okerreko aldaketa. Anderrek esaten dituen gauza batzuekin konforme nago, baina bere diskurtsoa exajeratua dela uste dut. Eta uste dut Gobernu ere ari dela ordaintzen alderdi sozialistak bere buruaz egin zuen diskurtso exajeratua. Egoera politikoaren aldaketa ez baitute eman uste zuten terminoetan. Aldaketaren funtsa EAJ Jaurlaritzatik kanporatzea izan da. Hori ukaezina eta objektiboa da, hortik aurrera aldaketa izan dela adierazteko zailtasunak daude. Gobernu honek aurrekoaren Ituna frontetzat jo zuen eta izaera horrekin hautsi nahi zuela argudiatu zuen. Hau da, “guk ez dugu frontierik egin nahi, guk gizartearen pluraltasuna errespetatu nahi dugu”. Anitzen arteko akordioa integrala osatuko zuela esan zuen, integraziozko kontsentsu bidez. Eta hori hutsean geratu da. Ez diot leporatzen Gobernuari frontea osatzeko asmoa, ezin

“Gobernua ari da ordaintzen alderdi sozialistak bere buruaz egin zuen diskurtso exajeratua. Egoera politikoaren aldaketa ez baitute eman uste zuten terminoetan. Aldaketaren funtsa EAJ Jaurlaritzatik kanporatzea izan da. Hori ukaezina eta objektiboa da”

XABIER GURRUTXAGA

handia duela baizik. Ibarretxerena ez zen gobernu nazionalista, ez zen frentista, eta beraz haren parean gobernu honek muga handia dauka. Eta da: Gobernu honek gai batean batekin, beste batean bestekin eta beste batean denen artean akordio bat nahi duela esan du, baina hori egiteko marjinarik ez dauka. Kontsentsu integralak eta transbertsalak egiteko zailtasun izugarriak dauzka. Ibarretxeren garaian ere, identitatearen gaia ustiatu zen muturreraino, eta ez zen ona izan euskal politikagintzarako. Adibidez, Euskadi Eguna ez zen egin behar, sozialista gehientsuenak ez ziren ados. Hasteko, EAJk horrelaxe egin zuelako, adibidez, Ereserkiarekin. Gehiengoa zeukanez, berea atera zuen aurrera. Egigurenek berak esan du: “Onartu dugu Euskadi Eguna baina ez modu egokian. Parlamentuaren erdia beste erdiaren kontrako botoekin, ez da aurkezpen txartel onena”. Aurreko Gobernu ez den beste zerbait dela erakutsi nahi dute, baina ez dute lortu. Estatutuaren garapena, kontsentsua eta autogobernuaren erreforma agindu zituen Lópezek. Eta horretarako, alderdien arteko bilera txanda egingo zuela esan ere. Iragarri eta bertan behera geratu zen. Zergatik? Basagoitik esan ziolako “legegintzaldi honetan hori ezta mugitu ere”. Orduan, kontsentsuatzeko mugak ditu. Bestalde, euskararen alorrean ez dut txikiziorik ikusten.

A. ITURRIOTZ. Nik ez dut aipatu hitz hori, Ramonek aipatu du.

R. ETXEZARRETA. Ezta nik ere zuk [Iturriotz] aipatu duzula, agoreroek aipatu dutela diot.

X. GURRUTXAGA. Ibarretxeren garaia demonizatu egin zen, exajeratuki. Niri PSEren “Euskara eta libertatea” delakoaren eslogana polita bezain delikatuak iruditu zait beti. Aurreko Gobernuaren garaian euskara ez zela libertatean ari adierazten baitu nolabait. Kontu handiz ibili behar da, euskararen inguruko eztabaidak oso delikatuak dira, ez bakarrik euskarari kalte egiten diotelako, elkarbizitzari kalte egiten diotelako baizik. Adibide bat: hezkuntza arloan nazionalismoak gaia tranpeatua zeukala pentsatu izan dute oraingok: emaitzak ez zirela gurasoen benetako askatasunean emanak, alegia. Eta orain Celaak eta Saileko kideek ustekabeko izugarria hartu dute aurrematrikulen datuak ikustean. Beraiek kontrolatutako prozesuaren datuak dira. Celaak nahiago zuen PP kontentuzteko bestelako emaitza bat. Hau da, A eredia indartzeko beste datu objektiboak espero zituzten, aurreko Gobernuak kideei “kautibo zegoen eremu hori askatuko dugu” esateko. Ez da horrela ordea.

R. ETXEZARRETA. Oinarrizko aldaketa oso gutxi eman da. Konforme. Hezkuntzaren inguruan bada go diskurtso problematiko bat eta legitimitatearen gaira gatoz berriz ere. Nazionalismoak –nazionalismoa diot, ez abertzaletasuna– bertute bat izan du nolabait: Euskal Herriko soziologia, santoral nazionalista batez inpregnatu du, eta ez-nazionalismoak ere horretan segitu dio nolabait. Hau da, gaia behar bezala kudeatu eta elkarbizitzara egokitu beharrean beti dago antitesira joateko arriskua. Ez dakit Aberri Eguna, Euskadi Eguna baino onargarriagoa edota identitarioagoa den. Baina mekanismoak huts egiten du, oinarrizko kontsentsu batek huts egin izan du bi kasuetan.

Euskararen gaiaz: nik ez dakit Isabel Celaaren kabinetak zein neurrian ez zuen arnasa hartu azterketa horren emaitzak ikusi zituenean, zeren eta euskarari buruz kudeaketa egoki bat egin dezakegu kontsentsu mininoarekin. Baina esan dezagun argi eta garbi: bai Celaaren sailari bai beste sailei ez zaie aitortu nahi euskararekiko inolako atxikimendurik.

Areago, euskararekiko etsaitasuna nabarmendu nahi da eta hori da herri honetan oso hedatua dagoen gezurra. Hau da, euskara euskal herritarrek sentitzen dute, ez denek noski, baina nazionalistek eta ez-nazionalistek sentitzen dute. Eta Gobernu honek bestela dioen diskurtsoaren kontra joan beharra dauka: “Euskara guztiona da” esanez. Guztiok maite dugu esatea gehiegi da noski, diskurtso arriskutsua da. Baina euskarari gizarteko zenbait sektoretan eduki dezakeen konnotazio negatiboa kendu behar zaio, prestigioa eman eta beste bide bat eskaini behar zaizkio. Esan nahi dut: Gobernuak aukera aparta dauka euskararekiko orain arte eduki ez duen hurbiltasuna agertzeko eta sinesgarritasuna irabazteko. Batzuetan dinamika politikoa perbertsoa dela uste dut, denbora hobeak etortzea espero dut elkarri entzuteko.

A. ITURRIOTZ. Ramonek esan duenez, Gobernu hau kontinuitate da. Tira, hori ez ezik erreformista da. Esaterako, osasun arloko anbulategiak hainbat lekutan itxiko dituztela esan du. Aurreko Gobernuak aurreikusitako neurria da. Celaak orduan neurri hori izugarritzko astakeria zela esan zuen. Ongizateko gizartearen desegiteko atarian ginela. Orain berriz PSOEk egin du. Eta gehiago egingo du, besteak beste, krisi ekonomiko oso azkarra kudeatzea egokitu zaiolako eta Madrilen ez duelako bidelagunik. Aldaketa beraz, zero. Estilo aldetik, Xabierrek dio estilo berri bat iragarri zuela Lópezek: integralitatea, transbertsalitatea... Kontsentsuaren kultura, alegia. Ideologia edo alderdi ilustratu bati doitzen zaion estilo berria. Baina, Xabierrek ere esan du transbertsalismoa inoiz baino ez-transbertsalagoa dela. Gobernu honek hartu beharreko erabakiak muga horren barruan hartzen ditu, oso zorrotzak, bere politika “nahi ala nahi ez” da. Esaterako, terrorismoaren deslegitimazioan: “Nahi ala ez egingo dugu. Gehiengo daukagu eta kito”. Zer transbertsalismo klase ahalbidetzen du jarrera horrek? Bat ere ez. Frontea oso markatuta dago, hertsia da, eta gainera kutsu espainola eta retrogradoa daukan frontea osatu dute, PPren antzirudira egindako frontea.

R. ETXEZARRETA. EA]rekin eztabaidatzen ari dira... [Hezkuntza gaiaz ari da Etxezarreta].



Hiru solaskideen hitzetan, ETA desagertu ondoren berebiziko aldaketa izango da euskal politikan, eta bereziki ezker abertzalean.

A. ITURRIOTZ. Ikusiko dugu noraino... Borroka identitarioan ez dute jarrera aldatuko. Euskara dela-eta, zuk diozu, jende batek ez duela sinesten PSEn euskararen aldeko sentsibilitate bat dagoenik. Nik bai. Hemen eta Nafarroan, PSEk nahiz PSNk euskararen aldeko boto emaileak dituela badakit.

R. ETXEZARRETA. Nik baino gehiago dakizula ematen du, ni ez naiz hain ziur horretaz, Nafarroan behintzat...

A. ITURRIOTZ. Zenbaketa erraza da. Nafarroan alderdiei emandako botoen ehunekoak zenbatu. Euskararen aldeotasuna herritarren %60koa da.

R. ETXEZARRETA. Aldekotasuna balio positibo bat da, Realak kamisetan daraman eslogana bezala.

A. ITURRIOTZ. Hori beste gai bat da. PSOeri ez zaiola aitortzen euskararen aldeotasuna diozu, baina aizu, estiloa ere erakutsi behar da. Xabierrek aipatu duen "Euskara eta libertatea" manifestuko terminoak hauexek dira: identitarioa, historizista, sektarioa, diskriminatzailea. Hori guztia euskara da agirian.

R. ETXEZARRETA. Non idatzia da hori? Demokraziaz ari zara? Adjektibo edo sustantibo bezala?

A. ITURRIOTZ. Agiriak "euskarazko kulturaren prestigio demokratikoa" planteatzen du.

R. ETXEZARRETA. Horren kontra al zaude?

A. ITURRIOTZ. Zergatik ez da eskatzen espainiar kulturaren prestigio demokratikoa? Alegia, euskal kulturak ez dauka prestigio demokratikorik?

R. ETXEZARRETA. Zeinek esaten du hori?

A. ITURRIOTZ. Agiriak.

R. ETXEZARRETA. Non?

A. ITURRIOTZ. Proposamenak "euskarazko kulturaren prestigio demokratikoa lehenbailehen berreskuratzea" dio. Galdu egin al du edo?

R. ETXEZARRETA. Uste duzu euskal gizarte osoan duela prestigiorik?

A. ITURRIOTZ. Zer prestigio demokratiko izan dezake kultura batek? Espainolezko kulturak ez du prestigio demokratikoa berreskuratu behar orduan?

R. ETXEZARRETA. Bai eta bestelakoek ere bai. Alegia, euskaldun ez den asko konbentzitu behar direlako idatzita dago horrela.

A. ITURRIOTZ. Euskaltzale batek agiria irakurtzen du eta...

R. ETXEZARRETA. ... ez da euskaltzaleentzako idatzia bakarrik.

A. ITURRIOTZ. Agiriak aitzakiak eta itzulinguruak ditu euskararekiko. Estilo arazoa dago. Esaterako, Aresen azken bideoan ere estilo arazoa dago. Ares jaunak ETako militanteak eta ETarekin inoiz harremanik izan ez duen jendea batu ditu. Frankismoak jazarri eta torturatu zuen jendea. Nahastu ditu ikurriña eta biolentzia, hori estilo kontua da. Hori arlo guztietan errepikatzen da.

“**G**obernu honek normaltasunerako pausoa eman du, herritarrek ikus dezaten ez dela ezer txikitzen, baita etorkizunean posible dela aurkarien artean elkarbizitza garatzea ere. Gainera, desarmea politikara etorriko balitz, denek berriitu beharko lituzkete beren planteamenduak”

RAMON ETXEZARRETA

Ordu bat eman dugu Gobernu honen legimititateaz eta identitate gaiaz. Non ikusten dituzue Gobernuaren zailtasunak hemendik aurrera?

X. GURRUTXAGA. PSEk eta PPK Ituna gauzatu zutenean bazekiten krisi ekonomikoak zailtasunak ekarriko zituela, halere, Ituna legegintzaldi osorako egin zuten. Lópezek Ituna zaintzea helburu propio bezala hartu du. Bera gabe egoera ez baita hobeagoa izango, bere ustez: “Espainian PPren eta PSOEn arteko egoera iskanbilatsua denez, hobe hau zaintzea beste egoera ezezagun batzuei atea ireki baino” pentsatzen dute bi aldeek. Bi alderdiek nahi dute egoerak irautea. Hala ere, 2011n foru eta udal hauteskundeetan egoera sakonki aztertzeke benetako unea helduko zaie PSEri eta PPri, Itunaren etekinak nola doazkien ondo kalkulatzeko. Artean, bakoitzak Itunari eusten dio Euskal Herrian mesede egiten dielakoan. Hauteskundeetako emaitzek euren helburuei ez dietela laguntzen ikusiz gero, Ituna berrikusiko dute. Halere, ez dut uste Ituna hausteko egoeran izango denik. Gainera, emaitza onak lortzen badituzte, Itunaren bigarren edizioa planteatuko dute hiriburuetako eta EAEko foru aldundien gobernuak lortu aldera.

EAJren eta PSEren jarrerak ez al dira hurbilduko?

X. GURRUTXAGA. Legealdi honetan Gobernuaren osatzeko terminoetan ez. EAJren eta PSEren arteko Ituna lortzeko betiko problema dago. PSEri EAJrekin gobernatzea gustatuko litzaioke baina lehendakaria berea izanda. PSEk nahiago luke EAJrekin Gobernuan egotea. Hori benetako sozialisten amets politikoa da, baina gehiengo absolutua lortzen ez duen bitartean EAJrekin batera Gobernuan egotea eta lehendakaria berea izatea amets politikoa da.

R. ETXEZARRETA. Gobernu honek normaltasunerako pausoa eman du, herritarrek ikus dezaten ez dela ezer txikitzen, baita etorkizunean posible dela aurkarien artean elkarbizitza garatzea ere. Gainera, [ETAren] desarmea politikara etorriko balitz, denek berriitu beharko lituzkete beren planteamenduak. Biolentziak jende asko zokoratu du eta politika egiteko maniobrarik gabe utzi. Biolentziak jende asko eroso bizitzetik kanpo utzi du, nagikeria intelektuala bultzatu du. Legimitate arazo handia dago hor ere. Planteamendu politikoak hain eskematikoak izanik, ikasi dugu prekaritate horretan irauten. Langa hori pasa eta politika konfliktuagoa egiten ikasi beharko dugu desberdinen artean. Noski, Gobernuak legeadi bukaeran beste espektatibarik zabalduko ez balu, frakasoaren abiapuntuan egon liteke –litekela diot, urte bat gutxi baita–. Beraz, frentismotik ihes egin behar du. Uneon frentismoan dagoela esateko datu gutxi dago, baina egon liteke epe ertainean.

A. ITURRIOTZ. Ituna oso ongi etorri zaio PPri, baina ez hain ongi PSEri. Oso modu gogorrean esan dut PSErentzat suizidio politikoa izan dela. PSEk badaki eman duela beraiek eman nahi ez zuten perfil bat: perfil beligerantea eta frentista. PSEn badago beste perfil bat, baskista. Horiek horrela, ikusiko dugu Madrilen zer gertatzen den Zapaterorekin, gauzak ez baitaude ongi. PPK hamar puntu ateratzen dizkio PSOeri [boto asmoen inkestetan]. Kontraesankorra litzateke Madrilen PPK boterea lortzea eta hemen PPK PSE laguntzea. Nik ez dut hori posible ikusten.

R. ETXEZARRETA. Felipe Gonzalez erori zenean, PPK EAJrekin paktatu zuen Madrilen.

A. ITURRIOTZ. Madrilen, ez hemen.

R. ETXEZARRETA. Nonbaitetik hasten da.

A. ITURRIOTZ. EAJk badakigu nola jokutzen duen, baldin eta ez dakit zer ekartzen duen Madriletik...

R. ETXEZARRETA. Edo Jaurlaritza eskuratzen badu...

A. ITURRIOTZ. Baita. Baina hemen orain arte ez da inoiz EAJ-PPren arteko Ituna planteatu alternatiba moduan. Dena den, Madrilen PP izanda, ez da oso kongruentea PSE Gobernuan egotea PPrek laguntzarekin. Espainian ez legoke ondo ikusia, orain bai, politika antiterrorista delakoa dela eta bestea dela.

R. ETXEZARRETA. Ander: PPK Madrilen irabaziko balu hemen EAJ Gobernuan sartuko litzateke?

A. ITURRIOTZ. PSE ez litzateke EAJren besoetara eroriko, baina beste perfil bat ematen saiatuko litzateke. Hor dugu Egigurenen ildoak, ezta?

(...)

A. ITURRIOTZ. Udal eta foru hauteskundeak badaitez. Batzuek ezker abertzalea ez dela izango diote, sozialistak eta popularrak jeltzaleak diputazioetatik kentzen saiatuko dira. Hala ere, nik ez diot Rubalcabari sinesten. Uste dut, aldeaz edo moldez, ezker abertzalea aurkeztuko dela.

R. ETXEZARRETA. Egigurenek ere horrelako zer-bait esan du azkenaldion.

A. ITURRIOTZ. Egigurenek dio ezker abertzaleak gerra politikoa irabazi diola ETari. Uneon gehiago ez dakit.

R. ETXEZARRETA. Gaurko berria da [maiatzaren 17a], aurkezteko aukera aipatzen du Egigurenek.

A. ITURRIOTZ. Hipotesi hori ezin da baztertu. Aldundietan eta udaletan beste konfigurazio bat osatuko balitz, eta ETA testuingurutik kenduko balitz, beste testuinguru politikoan egongo ginateke. Ikus-kizun honen aurrean ez dago jakiterik, baina egungo apustua eta egoera PSOerentzat kaltegarria da.

“Ituna oso ongi etorri zaio PPrei, baina ez hain ongi PSEri. Oso modu gogorrean esan dut PSEerentzat suizidio politikoa izan dela. PSEk badaki eman duela beraiek eman nahi ez zuten perfil bat: perfil beligerantea eta frentista. PSEn badago beste perfil bat, baskista”

ANDER ITURRIOTZ

Abertzaletasunaren geroa nola ikusten duzue, ezker abertzalearena bereziki?

R. ETXEZARRETA. ETaren biolentzia desagertzen den une beretik, noiz jakitea zaila da baina, ezker abertzaleak indar ikaragarria hartuko du

X. GURRUTXAGA. Ezker abertzalea iritsi den lekura iritsi baldin bada, besteak beste, gehiengo ezker abertzalearen proiektuak aurrera egin dezan libratu beharreko “gerra” handiena barruan daukala konturatu delako da. Borrokarako deitutako tresna horiek, egun aurrera egiteko traba handia direla ohartu dira. Tresna horien garaia pasa da eta proiektu politikoaren aldeko apustu serioa egin dute. Egigurenek ezker abertzalea ETaren gainetik jarri dela esan du, ezker abertzaleak lortu duela bera izatea eta ez ETak kontrolatua izatea. Azkeneko 30 urte hauetan hezur-mamitu gabeko esparru politiko hori erreferente oso inportantea da euskal politikagintzan. Ezker abertzaleak une izugarri zailak pasa ditu, ilegalizazioarena barne. Baina ilegalizazioa ez dela lege problema agertu dute, errealitate politiko eta sozial baten problema baizik. Ideologia ez dela ilegalizatzen ahal eta are gutxiago desagerrarazi. Batasuna da esparru politiko horren erreferente politiko nagusia eta borroka armatuaren zama ondo bideratzen denean, aldaketa izugarria izango da.

R. ETXEZARRETA. ETA desagertu ondoren prozesu katarsikoa hasiko da. Abertzaletasunaren erreferente politiko instituzionala EAJ da, baina azken 30 urteetan



Rodolfo Aresek zuzentzen duen Herrizaingo Sailaren jarduera gogor kritikatu zuen Ander Iturriotzek.

abertzaletasunari diskurtso ideologikoa ezker abertzaleak eman dio. *Desparpajoz* egin du eta abertzaletasunean hori da diskurtso nagusia. EAJk nolabaiteko modulazio eta moderazioa egin du. Ezker abertzaleak ez du ordezkari-tza instituzional egonkorrik eduki eta geroan lidergoa nork hartu duen izango da jokoan.

Zein epean? Zenbat legealditan, alegia?

R. ETXEZARRETA. Herritarrei proiektu hori sinestazten pasatzen duen denboraren arabera. Herritarrek benetan sinesten badute biolentzia politikoa utziko dutela, ezker abertzalearen arrakasta bermatuta dago.

X. GURRUTXAGA. ETA desagertuta, denbora kon-tua da. Hasieran proiektua puztuko da, gehiegi puztu ere, gero bere onera etorriko da. Baina ezkerreko eta abertzale bitasunak dimentsio politiko sozial ikaragarria dauka. 30 urteetan, populazioaren %15-20 botoa-rekin politika erabat baldintzatu du.

A. ITURRIOTZ. Hirurok bat gatoz puntu horretan. Objektiboki lau esparru nagusi dira euskal politikagintzan: PSOEren eta PPren esparruak batetik, eta EAJren eta ezker abertzalearen esparruak bestetik. Ezker abertzalearen esparruan, EA eta Aralar ere badaude. Koiunturalki garrantzitsuak dira, baina epe ertainera epifeno-menoak dira. Ikusi beharko da, noski, ezker

abertzaleak zein dinamika hartzen duen, EA buelta daiteke EAJ aldera edo ezker abertzalean finkatu. Ezker abertzalea birfundatua izango den ez dakit, baina horrek bai ekarriko lukeela normaltasuna. Ezker abertzalearen apustua serioa baita. Bi dinamika ekarri-ko ditu bereziki: bat, abertzaletasunaren egoera gora-beheratsua izango da, batzuetan EAJ goian izango da eta bestetuzetan ezker abertzalea. Beste esparruan berriz, PSEk ia esparru osoa dauka irabazteko. PPK ez du esparru soziologikorik, Katalunian daukan bezala. PPren diskurtsoa biolentziarekin bakarrik elikatzen da, biolentzia desagertzen bada, asko jaitsiko da.

R. ETXEZARRETA. Hemen Katalunian beste aukera dauka, adi!

A. ITURRIOTZ. Herritarren %7a baino ez.

R. ETXEZARRETA. Fronte politika gurean errotzen hasten baldin bada, PPK lekua jango dio PSEri. Inteli-gentziaz kudeatu beharreko egoera izango da. Madri-len agintzen duenak eragingo du hemen.

A. ITURRIOTZ. Klabe politikoak hor daude, baina hotzean begiraturik PPK hemen ez du soziologia poli-tikorik, egoera normalizatu batean, noski. Gainera horrek PPren barruan eztabaida piztuko luke.

R. ETXEZARRETA. Egoera normalizatu batean ere, EAJren eta PPren interesak hurbildu daitezke, auke-rak zabaldu egiten dira...

A. ITURRIOTZ. Inportanteena da baskismoa zabal-tzea behingoz, estilo katalanean, PSOEek ea nora jotzen duen. Badirudi EAJrekin iritsi daitekeela elkar moldatzera epe ertainean. Baina PSEk ere jo dezake ezker abertzalearen aldera. Batzuek hurbildu ote zitezkeen diote. Nik ez dut asko sinesten baina.

X. GURRUTXAGA. Anderrek dioena osatu aldera: indarkeriaren amaiera ahalik eta modu egokienean gauzatzeak, ezker abertzalearen integrazioak eta beste guztien aukerak berdinean egoteak behartuko du abertzaletasuna beste modu batez hitz egitera. Hasteko, EAJn eztabaida eta iskanbilarako motibo asko izango da. EAJn bi joera daude, eta horiek ez daude oraindik definituta. Honezkero batzuk pentsa-tzen ariko dira luzarora begira zerbait egitea, baina besteak ez. ■



INIGO AZKONA

Josu Amezaga *

Urtebeteko fikzioa

“Lópezen Gobernuaren gehiengo absolutua fikziozkoa da. Horregatik, osagai sinboliko eta kulturalak berebiziko garrantzia hartzen dute fikzioaren eraikuntzan, errealitateak ematen ez duena konpentsatzeko”

Legebiltzarraren gehiengo absolutua duen Gobernu izateko, ezin esan daiteke Patxi Lópezen taldea legegintzan bereziki aktiboa izan denik. Izan ere, 2010eko Aurrekontuen legea alde batera utzita, honakoa da arlo honetako emaitza: bi lege aldatu dira (naturaren babeserakoa, eta haur eta gazteen babeserakoa), biak artikulu bakarreko lege banaren bidez; eta lege berri bakarra onartu da, bi artikulu dituen (orrialde bat okupatzen du EHAAn), Autonomia Estatutua onartu zen eguna jai ofizial izendatzeko. Horrela, Legebiltzar honen jarduna inoizko apalena izan da, Lizarra-Garaziko prozesuaren hausturaren ostean Ibarretxeren Gobernu minoritarioak izan zuena baino are apalagoa. Batzuen iritzi, gaitzerdi.

Ez dut uste kasualitatea denik onartu den lege berri bakarra Urriak 25 jai bihurtzearena izatea. Aitzitik, gobernu horren lehentasunak islatzen ditu. Ilegalizazioaren eta aldaketa politikoaren eskutik “Euskal Herrira (EAEra alegia) normaltasuna” iritsi dela dioten horiek, normaltasuna ikustarazten egin dute esfortzurik handiena: legez kanpo utzitakoak bistatik kentzen, gatazka baten ondorio latz ugari estaltzen, herri baten esistentzia eta bizi nahia disimulatzen, eta oro har lehenda-

kari ustez politizatuegi baten ordez despolitizatu-tako lehendakari *guatxi* bat jartzen. Normala Espainia baita, ez Euskal Herria.

Normaltasuna ordea, benetakoa edo fikziozkoa izan daiteke. Eta kasu honetan Lópezen Gobernuaren gehiengo absolutua bezain fikziozkoa da. Horregatik, osagai sinbolikoek eta kulturalak berebiziko garrantzia hartzen dute fikzioaren eraikuntzan, errealitateak ematen ez duena konpentsatzeko. Halaxe ikusi genuen PSE-EEK eta PPK sinatu zuten hitzarmenean: krisi gordinaren erdigunean idatzitako bederatzir orrialdeko dokumentu hartan, bat eta erdi eskaini zitzaizkion ekonomiari, hezkuntza-hizkuntza-EITB trinomioari hiru eta erdi dedikatu bitartean.

Baina fikzioak mugak ditu, eta ospakizun, kanpaina zein aldizkari banaletako argazkiek ezin dute ezkutatu errealitatea. Horrela, hezkuntzaren arloan, ez dirudi gizartean oso errotuta dauden jarrerak dekretuz alda daitezkeenik. Matrikulazio kanpaina, A ereduaren aldarrikapena porrot ikusgarria izan zen; D ereduaren aurkako Troiako Zaldia (hirueleko eredu) airean dago oraindik, ikasturte berria hasteko hiru hilabete falta direnean; eta eskoletara adoktrinamendu ideologikoa eramateko plana, izoztuta oraingoz.

“Urte bat joan da Patxi López lehendakaria denetik, eta orain arte ezin esango dute arrakasta handirik izan dutenik. Baina lau urte luze dira, eta hasierako oztopoak eta errakuntzak gainditzeko astia ematen du. Alabaina, etorkizun politikoa airean dugu gaur egungo Euskal Herrian, eta nekez da asmatzen urtebete barru zein izango den balantzea”

Kultura Sailean gauzak hobeto egiten saiatu zirela dirudi, edo halaxe interpretatu genuen batzuek, sailburuordeen izendapenak ikusita. Euskararekiko sentsibilitate ezberdin biren arteko oreka hark (bata Kultura, Gazteria eta Kirolean kokatuz, eta bestea Hizkuntza Politikan) bide eman zion hainbati, PSE-EE euskararen unibertsoa hurbil zitekeela pentsatzeko. Baina oreka hura euskararen kalterako hautsi dela iradoki zuten geroagoko dimisioek, eta hurbilketaren esperantza zapuztu. Patxi Lópezek berak euskararen inguruan erakutsitako fribolitate eta axolagabekeriak ez zuen asko lagunduko itzaropen hori elikatzen.

EITBri dagokionez, nabarmena da batzuek nahiko luketen normaltasuna irudikatzeko ahalegina. Eztabaida eta parte hartze politikoa modu esanguratsuan murriztu dira, haren ordez banalitatea ezarriz. Horrekin, euskal gizarteak behar duen eztabaida publikoa ukatzeaz gain, EITBren sorrera legeari berari egiten zaio iruzurra (izan ere lege horrek parte hartze politikoa eta euskara zein euskal kulturaren sustapena jartzen baititu medio publikoen helburutzat, inon agertzen ez delarik entretenimendua helburu gisa). Erreferentzia eremua, gero eta nabarmenago, Espainia da, eta digitalizazioa baliatu dute, Lópezek eta Sanzek eskuz esku, Nafarroatik ETB desagertarazteko.



EITBren egoitza nagusia Bilbon.

EITBri dagokionez ordea, esan beharra dago PSE-EEren Gobernuak bide errazagoa aurkitu duela beste eremu batzuetan baino. Hogeita bost urtean eraiki den ereduan, telebista eta irrati publikoak Gobernuan zegoen alderdiaren tresna gisa ulertu dira, eta Gobernu honek aurrekoen berdina egin du: postuak aldatu eta probetxu propiorako erabili. Hainbeste aipatu diren zentsura eta betoak ere ez dira Gobernu honek asmatuak, EITBren historian sarritan gertatutakoak baizik. Egia da orain are nabarmenagoak direla joera horiek, baina horrek ez luke aurreko guztia ahanzarazi behar.

Urte bat joan da Patxi López lehendakaria denetik, eta orain arte ezin esango dute arrakasta handirik izan dutenik. Baina lau urte luze dira, eta hasierako oztopoak eta errakuntzak gainditzeko astia ematen du. Alabaina, etorkizun politikoa airean dugu gaur egungo Euskal Herrian, eta nekez da asmatzen urtebete barru zein izango den balantzea. Denborak esan beza.



INIGO AZKONA

Joseba Arregi*

Urtebete gutxi da

"Gobernu honek seriotan hartzen du euskal gizartearen subjektu politiko izatea. Izate honen oinarrian Estatutua eta Konstituzioa daudelako beste zerbait beharko litzatekeela diotenak, aldiz, ezinezko bihurtzen dute"

Izaskun Bilbao andereak Patxi López lehendakariaren gobernuari esan dio ospakizunak utz ditzala eta ekin diezaiola arazoak konpontzeko beharrezkoa den lanari. Langileak igandeko, eta larunbateko, atsedenerako eskubiderik ez balu bezala. Behar bezala lan egin ahal izateko atsedean hartzea, eta ospatzea zer ospaturik dagoenean, beharrezkoa baldintza ez balitz bezala.

Arazoa ez da ospatu ordez lan egitea. Kuestioa zera da: zer da ospatzen dena? EAJrentzat, noski, ezin ospakizun gai izan beraiek boterea galdu izana. Are gutxiago boterea galdu eta beharrezko ondorioak erakartzeko kemenik edo argitasunik ez izana, munduan zehar alderdi politiko guztiek, boterea galdu ondoren, egin ohi duten bezala beraien egitasmo politikoa erroitik aztertu eta berritzeko.

Ba ote dago norbait euskal gizartean gobernu berria eta Legebiltzar gehiengo berria ospatzeko gogorik duenik eta arrazoirik ikusten duenik? Bat baino gehiago, seguruenik. Arritzekoa gertatzen baita, adibidez, Aralar alderdiko Ezenarro andereak aditzera ematen duena, PP alderdia onargarria ez dela alegia, edota demokratikoa ez dela, edota existituko ez balitz bezala jokatu behar dutela gainontzeko guztiek, PP alderdiari botoa ematen dioten

euskotarrak Aralar-i ematen diotenak baino dezente gehiago ez balira bezala.

Badago zer ospaturik, bai, eta egoera arretaz begiratu gero, orainartekoa gogoan izanez gero, euskal hiritar orok ikusi beharko luke eman den aldaketan ospatzeko arrazoirik. Ez ote lukete aber tzaleek ere euskal gizartea subjektu politiko izatea nahi izan behar? Azken batean hori baita galdetu beharrekoa.

Orain dela urte bete osatutako gobernu berriak, eta Legebiltzarreko gehiengo berriak, horixe aldarrikatu zuten beraien akordioan: euskal gizartea, Euskadi subjektu politiko bat dela, subjektu politiko izatea ahalbideratzen dioten akordioak –Konstituzioa eta Estatutua– ontzat ematen dituela eta errespetatu, horiek izango dituela bere lan politikoaren oinarri, horiek direlako euskotarrak, elkarrekiko diferentek, anitzak eta konplexuak izanik, elkarrekin askatasunean eta bakean bizi ahal izateko beharrezko baldintza.

Horixe da, hain zuzen, EAJri eta beste alderdi aber tzaleei salagarri iruditu zitzaiena, horrexek eman zien min. Eta min eta salaketa horren zergatiaz galdetzen bada, begi-bistan gelditzen da: ez dagoelako, alternatibarik. Alternatiba bezala planteatzen den guziak

“Guzti hau oraindik garbiago azaltzen da gobernu berriaren oinarrian dagoen akordioaren beste gai garrantzitsuari begiratzen bazaio: ETaren indarkeriaren kontra borrokatzeko borondateari eta biktimen oroimena zaintzeari. ETaren terroreak biktimak sortu ditu Euskal Herriaren lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidea gauzatu ahal izateko, hau da, euskal gizartea ulertzeko modu bat indarrez gauzatzeko”



Ajuria Eneak lehendakari abertzale bati eman zion ostatu hogeita hamar urtez. Iaz maizterrez aldatu zen.

identitate batekoak bakarrik bil ditzake, baina ez beste-koak. Alternatiba bezala planteatu daitekeen guztiak abertzaleentzako bakarrik balio du, baina ez bere burua euskal abertzaletasun eskusiboan hertsirik ikusi nahi ez dutenentzat.

Guzti hau oraindik garbiago azaltzen da gobernu berriaren oinarrian dagoen akordioaren beste gai garrantzitsuari begiratzen bazaio: ETaren indarkeriaren kontra borrokatzeko borondateari eta biktimen oroimena zaintzeari. ETaren terroreak biktimak sortu ditu Euskal Herriaren lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidea gauzatu ahal izateko, hau da, euskal gizartea ulertzeko modu bat indarrez gauzatzeko, beste moduak hezurmamitzen zituztenak garbitu. Estatutuaren eta Konstituzioaren ikur zirenak, era batera edo bestera, erail eta bidetik kendu.

Helburu hauek ezin izan daitezke, indarkeriaz edo terrorerik gabe, euskal gizartea subjektu politiko bihurtzeko oinarri, euskal gizartea bitan zatitu besterik ez dutelako egiten, eta gainera eraildakoen odoletik jaiotakoa izango litzatekeelako subjektu politiko hori. Ustezko eskubide horietan oinarritutako subjektu politikoa eraikitzeak eraildakoak ondo erailda daudela esan nahiko lukeelako.

Historia gogora ekartzen badugu, erraz ikus genezake bitan bakarrik izan dela euskal gizartea subjektu politiko bateratua: 1936ko Estatutuarekin, eta 1979az geroztik, honetan ere Estatutuari esker. Estatutuak ezer esan nahi badu horixe baita, hain zuzen: euskal gizartearen baitan lortutako akordio batek subjektu politiko izatea ahalbidetzen diola, akordio horretatik kanpora gelditzen direnak, terrorea erabiltzen duten unetik, deslegitimatuz gelditzen direlako.

Gobernu honek seriotan hartzen du euskal gizartearen subjektu politiko izatea. Izate honen oinarrian Estatutua eta Konstituzioa daudelako beste zerbait beharko litzatekeela diotenak, aldiz, ezinezko bihurtzen dute. Beraien esperantza beti izan baita azkenean, noizbait eta nolabait PSE horretara makurtuko dela. Eta horixe da ihesian doakien esperantza PSEk eta PPK sinaturiko akordioaren bitartez, eta horrek esplikatzeko du argiro PPrekiko nabari den amorrazio bizia. Ikasi beharko dute, ordea.

Hedabide batzuen laguntzarekin euskal gizartea aldatzea xede?



DANI BLANCO

Erramun Osa*

“Patxi López eta enparauak Eusko Jaurlaritzara iritsi direnetik PSE-EE alderdia, hezkuntza bezalako gaietan, kateatuta eta PP alderdiaren obsesioen gatibu egon da... eta dago”

Zerk ahalbidetzen du –Estatuaren ikuspegi zentralista, elebakar eta uniforme bera oinarri-oinarrian partekatzea ez bada– desberdintasun guztien gainetik zein azpitik Madrilan aurkari gogor diren bi alderdi Euskadin elkarren arrimuan aritzea? Izan ere, ikuspegi hori izan zen, nire ustez, duela urte bat pasatxo PSE-EE eta PP alderdien arteko akordioa harilkatu zuena, akordio horrek euskal gizartean sortzen duen errefusa Estatuko eta EAeko pisuzko hedabide batzuen erabateko hauspo-emate eta sostengua-reakin ainguratzen saiatzen diren bitartean.

Esan =/= egin

Euskal gizarteari hitzarmen hori irenstea errazago gertatzeko, desberdinen arteko akordioei buruzko aipamenekin, fronte politikak eta alde bakarrekoak diren ikur eta identitate zeinuetan ardaztutako politikak alboratzeko konpromisoaren zorroarekin zetorren. Alabaina, hilabeteotako jardunak bestelako jitea erakutsi digu: alde bakarreko erabakien ezarpena, alde bakarreko identitate zeinuetara lerratutako eztabaidak, txilindroaren erabilera sistematikoa... Zer besterik espero zitekeen alde bakarreko Gobernu baten eta haren bazkidearen obsesioetan ardazten den hitzarmen bat izenpetzen denean?

Eta zeintzuk izan dira PSE-EE eta PP alderdiek hitzarmenean jaso eta, PP alderdiaren jarraipen estua-reakin, garatzen ahalegindu diren lan-ardatzak? Besteak beste: euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzei eman beharreko lekua berraztertzea; aurreko Gobernuak hartutako hainbat erabaki birformulatzea; laguntza politikak EAeko elkarte eta erakundeetara mugatzeko erabakia; lanpostu-deialdietan euskarari ematen zaion pisua murrizteko konpromisoa; indarrean egon diren euskalduntze planak berrikustea; hezkuntza-sistema alde bakarreko proiektu politiko baten doktrinaren arrastoan sartzen saiatzea...

Euskarazko irakaskuntza jo puntuan

Hasierako ahaleginean euskarazko irakaskuntzak urteetan izan duen bilakaera –D ereduak batez ere abertzaleen ezarpenaren ondorio izan dela eta familiariek “askatasunean” erabakitzea lehentasunezkoa zela lau haizeetara barreiatu zuten, A ereduaren aldeko kanpaina egitearekin batera. Alabaina, aurre-matrikulazio prozesua ireki zenean, familiariek, beste behin, gezurrezko mezuak albora utzita, gizarte elebidunaren alde egin duten apustu sendoa eta zabalaren berrespenaz erantzun zuten, 2010-2011 ikasturteko aurre-matrikulen %97 euskarazko ereduak bildu bai-



Isabel Celáa, Hezkuntza sailburua.

tute. Errealitate horren aurrean, esanguratsuak izan dira irakaskuntza arloko CCOO sindikatuko buruzagiak –sindikatu honetako pisuzko kideek aldi berriko Hezkuntza sailaren gunegorria osatzen dute– *El Mundo* egunkarian zioena: “Urteetako joerari buelta emateko denbora behar da”. Ez ziren, bada, familien nahiak eta aintzat hartu behar? Ala, nahi horiek baldintzatzea, aldatzea da nahi eta bilatzen dena?

Murrizketak eta inprobisazioa

Nafarroako eta Iparraldeko ikastolek, tokian tokiko administrazioek azpiegituretan dituzten beharrei bizkar ematen dietelarik, 2008. urtera arte Eusko Jaurlaritzatik jaso zituzten laguntzek ez dute jarraipenik izan 2009. urtean, PSE-EE eta PP alderdiek hitzartutakoari esker haien egoera are gehiago zailduz. Baina murrizketak ez dira horretara mugatu, maisu-maistren eskalduntzeak, euskara maila eguneratzeko edo jasotzeko ikastaroek, eta abar luze batek murrizketa latzak izan baitituzte 2010. urteko aurrekontuetan. Halakoetan, krisia izan ohi da, Nafarroan bezala hemen ere, aipatzen den motiboa egiazko arrazoiak ezkatuzeko. Esan gabe doa krisia denean erabakitzen, lehenesten diren eta abian jartzen diren egitasmo berrietan islatzen dela agintarien benetako sentiberatasuna.

PSE-EE PP alderdiaren zordun

López eta enparauak Eusko Jaurlaritzara iritsi direnetik PSE-EE alderdia, hezkuntza bezalako gaietan, kateatuta eta PP alderdiaren obsesioen gatibu egon

“Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak oposizioan zegoenean aldarrikatzen zuen politika alboratu, eta besteei leporatzen zien jardun bera garatu ez ezik harago eraman du, eta horrela... horrela ez dago adostasunik bilatzerik, ez dago gizarte hau ehuntzerik, bizikidetzara eraikitzerik”

da... eta dago. Ez da ibilbide propio bat garatzeko gauza izan. Horrexegatik, PP alderdiaren sostengua galtzearen beldur, sistematikoki uko egin dio hezkuntza-erkidegoarekin zein oposizioko alderdi abertzaleekin gai esanguratsuak eztabaidatu eta adosteari, eta egin duenenean, halabeharrik –ez konbentzimenduak– eraginda egin behar izan du. EAEko eskolaldirako curriculumak, datorren urtean esperimentazio-fasean jarriko den Hezkuntza Marko Hirueleduna edota Bakearen Aldeko Hezkuntza Plana –besteak beste, gazteria balio politiko alderdikoi batzuen arabera doktrinatzeko bilatzen duena– dira jokabide hori erakusten duten azken asteotako adibideak.

Laburbilduz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak oposizioan zegoenean aldarrikatzen zuen politika alboratu, eta besteei leporatzen zien jardun bera garatu ez ezik harago eraman du, eta horrela... horrela ez dago adostasunik bilatzerik, ez dago gizarte hau ehuntzerik, bizikidetzara eraikitzerik, eta are gutxiago, hezkuntza sistemak, partekatutako irizpideen baitan, denboran iraunarazteko moduko markoa sortzeko eta garatzeko inolako aukerarik.

Gure hezkuntza komunitatea arriskuei aurre egiteko heldua da!



Anjeles Iztueta*

“Europar kokatutako herria gara, eta eleaniztasuna ere bada gure Hezkuntza Sistemaren helburu. Aspalditik dakigu hori posible dela, hor dago Ikastolen Konfederazioko Eleanitz programa, urte askotako emaitza oso onekin”

Eusko Jaurlaritzan PSE-EEk urtebete egin du agintean PPren laguntzarekin, eta hona iritsi zen gizartearen zati bat hitzik gabe utzita gero. Honen inguruan hainbat eta hainbat hausnarketa egin badaitezke ere hizkuntza-ereduen eta eleaniztasunaren gaietan zentratuko naiz.

Betebeharrak argi daude... 16 urterekin gaitasun osoa euskaraz eta gaztelaniaz: Iparraldean eta Nafarroan ez bezala, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeen osotasunean euskara da berezko hizkuntza eta bai euskara bai gaztelania dira ofizialak. Derrigorrezko Hezkuntza bukatzerakoan ikasleek bai euskaraz bai gaztelaniaz gaitasun osoa izan behar dute. Honek esan nahi du gaur eguneko Europako Hizkuntzen Erreferentzi Marko Arautuan, 16 urterekin gure gazteek B2 froga gainditu behar dutela euskaraz eta gaztelaniaz. Hona hemen indarrean dauden Legeek honetaz diotena hitzez hitz:

1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutu Legeak dio hitzez hitz: “Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”.

1982ko Euskararen erabilpena araukatzeko oinarriko legeak dio hitzez hitz: “Jaurlaritzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantz emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzapidetan”.

Europar gaudenez... euskara eta gaztelaniaz gain ingelesa ere bai: Europar kokatutako herria gara, eta eleaniztasuna ere bada gure Hezkuntza Sistemaren helburu. Aspalditik dakigu hori posible dela eta hor dago Ikastolen Konfederazioko Eleanitz programa, urte askotako ibilbidearekin eta emaitza oso onekin! Badaude ere emaitza oneko ikastetxeak bai sare publikoan eta baita kristau eskola sarean ere. Beraz ahal da!

Gurasoen gehiengoa D ereduaren alde dago; 71ak aukeratu du: Urtez urte D eredu guraso gehiagok aukeratzen dute eta azken ikasturte honetan gurasoen %71ak aukeratu du D eredu bere 3 urteko seme-alabentzat. Inguruari begiratu badiogu Katalunian ere bi hizkuntza ofizial izanik betidanik Hezkuntza guzti-guztia D eredu izan dute.

Hizkuntzen 2004ko Ebaluazioa Europako Erreferentzi Markoan... %47,3ak bakarrik gainditu zuen B2 euskera froga: 2004 urtean lehen aldiz ISEI-IVEIk neurtu zuen nazioarteko erreferente bat hartuta derrigorrezko irakaskuntza amaieran, 16 urterekin, ikasleek duten euskara maila. Horretarako B2 froga homologatuak sortu ziren euskararentzat eta emaitzak espero zitezkeenak baziren ere argigarriak izan ziren: Ikasleen %47,3ak bakarrik gainditu zuen froga.

Argi dago ez dugula legeek ezarritakoa betetzen.

Zein da bidea gure helburuetara heltzeko?:

Gure ustez, zutabe hauetan oinarritu beharko genuke egitekoa:

– Euskal Hezkuntza Sistemari Euskara oinarritzko hizkuntza izan beharko luke. Euskara indartu behar dugu edozein ereduetatik abiatzen garela ere, guztiz argi egonik D eredu dela abiapunturik hoberena. Euskara indartu bai ikasgeletan, bai jantokian, bai eskola giroan eta bai eskolaz kanpoko ekintzetan. Euskal Curriculumean, 2005ean gehien-go osoz onartu zen horretan, printzipio hau argi eta garbi azaltzen zen.

– Ikastetxeei autonomia osoa eta baliabideak eman behar zaie tokian tokiko egoeratik abiatuta beren proiektua garatzeko. Eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarritzen bagara, gutxien dagoen tokian berdintasunera iristeko gehiago jarri behar da eta honek gai guztietako balio du, berdin euskara, matematika edo beste edozeinetan. Hala ere, ikastetxeen autonomiari ebaluazio bateratua lotu behar zaio eta hori Europako Hizkuntzen Erreferentzi Markoan eta euskarari dagokionean, 16 urterekin B2 maila gainditu beharrean datza.

– Irakaslearen prestakuntza indartu alor guztietan. Eleaniztasuna bultzatu nahi badugu elebitasunetik abiatuta derrigorrezkoa da irakasleagoa prestatzea eta bere egunerokoa horretan laguntzea. Arreta berezia bai IRALEko R ikastaroei eta baita Euskal Kulturaren inguruko prestakuntzari.

Non daude benetako arriskuak?

– Euskara indartu beharrean euskarari orduak kentzea azken proposamenetan egiten den bezala.

– Eredu bakarrera jotzea baliabiderik gabe, hori B eredu kaxkar bat litzateke.

– Irakaslearen perfilak ez errespetatzea eta gogodan dugu Bertendona auzia.

"2004 urtean lehen aldiz ISEI-IVEIk neurtu zuen nazioarteko erreferente bat hartuta derrigorrezko irakaskuntza amaieran, 16 urterekin, ikasleek duten euskara maila. Horretarako B2 froga homologatuak sortu ziren euskararentzat eta emaitzak espero zitezkeenak baziren ere argigarriak izan ziren: Ikasleen %47,3ak bakarrik gainditu zuen froga"

– Iraleko R ikastaroak eta irakaslearen prestakuntza oro murriztea azken aldian egiten ari diren bezala.

– B2 maila ebaluazioetatik baztertzea eta egiazko emaitzak ezkatzea.

– Etorrinak eta etorri berriak zuzenean bazterreko A eredu bideratzea.

– Baliabiderik gabeko eleaniztasuna planteatzea. Aukera berdintasunak baliabideak eskatzen ditu eta horretaz ez dago ezer planteatuta.

Ondorioz, eta labur esanda, arriskua zera da: ebaluaziorik gabeko, baliabide erantsirik gabeko, emaitza kaxkarreko B ereduaren antzekoa inposatzea. Dena dela, konfidantza osoa daukat gure Hezkuntza Komunitatean, arrisku hauei eta beste batzuei aurre egiteko heldua baita.

** Matematikaria. EAeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu ohia*

Deslegitimazioa gogotik eta elkarrizketa gutxi



Maria Lizardi*

JOSU SANTESTEBA

"Gizartearen deslegitimazioa lortzeko helburua eta elkarrizketarako gaitasun urria nagusitu dira bake alorrean Gobernuak gauzaturiko jardueran. Urtebete geroago, ez da aurrerapausorik eman eskubideen bermean"

Urte bat igaro denean, Patxi López lehendakari izendatu zutenetik, bake helburuaren gainean egin duen jardueraz balorazioa egiteko unea iritsi da. Indarkeriaren deslegitimazio soziala bultzatzea izan da Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna gai honetan. Ardatz horren inguruan biratu dira Gobernuaren ekimen nagusietako asko. Bakar batzuk gogora ekartzearen, horra hor presoen kartelak eta argazkiak kentzeko agindua eta bake hezkuntzaren euskal planaren eraldaketa.

Indarkeriaren deslegitimazio sozialaren kontzeptua definizio ezaren eremuan mantentzen dela argudiatu du behin baino gehiagotan Lokarrik. Ez dago argi zeintzuk diren terrorismoa legitimatzen laguntzen duten jarrerak. Areago, euskal gizartearen azterketa oker batetik abiatzen da. *De facto*, euskal gizartearen gehiengo oso zabalak gaitzesen du indarkeria eta, beraz, gutxiengo oso urriarengan izan ezik, indarkeria nahikoa deslegitimaturik dagoela kontsidera daiteke.

Gobernuaren neurritik egokitutako saski-naski bilakatu da indarkeriaren deslegitimazio soziala. Bakearekin eta elkarbizitzarekin lotutako bere ekin-tza bakoitza deslegitimaziorantzko aurrerapauso bat bezala aurkeztu dute. Horrela, bere ekimenek

jasotzen dituzten kritikak itzalez estaltzea lortzen du Gobernuak. Kritika horiek indarkeriarekiko jarrera ez irmoa ezkututzen dutela edo deslegitimazio zereginean lagundu nahi ez dutela egotziz, egiten ari da Gobernuak esparru horretan politika. Horren adibide ditugu Patxi Lópezen adierazpen hitzak, kritikatu zuenean hainbat alderdi politikoren presentzia Ezker Abertzaleko buruzagien atxiloketa salatzen deitutako manifestazioan. Lehendakariaren hitzetan, "trabak jartzen dira ETari babes ematen dioten zigorgabetasun esparruei aurre egiteko".

Eusko Jaurlaritzarentzat printzipio-kontua da deslegitimazio helburu hau. "Printzipioak ez dira negoziagarri" goiburuari helduz, elkarrizketa eta akordio gabeziarekin jaio dira garatutako ekimen asko. Elkarrizketaren eta transbertsalitatearen lehendakaria izan nahi zuela baieztatu zuen López lehendakariak berak hauteskunde kanpainen. Aitzitik, borondate horrek ez du islarik izan bere gobernuaren jardueran. Jarraturiko dinamika oso antzekoa izan da gehienetan. Aurrena proposamen bat aurkeztu, deslegitimazioaren soinekoarekin jantzi, praktikan jarri eta soil-soilik azken unean onetsi da elkarrizketan jardutea aldaketa txikiak sartzeko.



PSEren eta PPren Itunak legealdi osoan iraugo du, antza denez.

Dinamika honen adibidetako bat da karriketarik ikur terroristak, legezko aldarrikapenak, hala nola sakabanaketarekin amaitzea aldarrikatzen dituzten kartelak kentzeko ofentsibari dagokio. Bakarrrik praktikan jarri eta gero ekin zioten udaletxeekin hitz egiteari. Baina hezkuntzaren euskal planaren eraldaketaren aurkezpenean aurki daiteke adibiderik begi-bistakoena. Bere edukiak iragaziz joan da Gobernuak, eta azkenean, bere aurkezpena gauzatu du aurretik alderdiekin, hezkuntza komunitatearekin eta elkarte bakezaleekin alderatu gabe. Eztabaida puri-puritan zelarik, eraldaketa hau printzipio-kontu bat zela idatzi zuen López lehendakariak bere blogean. Ondoren, elkarrizketa prozesu bat zabaldu da, baina oso zedarritua, eta akordioetara iristeko Gobernuaren ahalegin egiazkoa bezala aurkeztu dute.

Laburbilduz: gizartearen deslegitimazioa lortzeko helburua eta agerian geratu den elkarrizketarako gaitasun urria nagusitu dira bake alorrean Gobernuak gauzaturiko jardueran. Urtebete geroago, ez da aurrerapausorik eman eskubideen eta askatasunen bermean, erakundeetatik bazterturikoek egoe-

“Gobernuaren neurritara egokitutako saski-naski bilakatu da indarkeriaren deslegitimazio soziala. Bakearekin eta elkarbizitzarekin lotutako bere ekintza bakoitza deslegitimazioranzko aurrerapauso bat bezala aurkeztu dute. Horrela, bere ekimenek jasotzen dituzten kritikak itzalez estaltzea lortzen du Gobernuak”

ra berean jarraitzen dute eta transbertsalitatea bi aukera baino ematen ez dituen Eusko Jaurlaritzaren bakarrizketa bilakatu da: bere proposamen guztiak onartzea inongo kritikarik gabe edo indarkeriaren legitimatzaile bihurtzea.

** Artikulua Maria Lizardik, eta Paul Ríosek ere sinatua da: Lokarriko komunikazio saileko kidea eta koordinatzaile nagusia, hurrenez hurren*

**LARRUN pentsamendu aldizkaria
ARGIArekin batera banatzen da**

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefona:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.236. zenbakiarekin banatua, 2010ko ekainaren 27an)